

azpeitianzer?

udal aldizkaria

147. zenbakia
2012ko maiatza



Azpeitiarren aurrekontuak

Azpeitiko Udalak 16,5 milioiko aurrekontua onartu du 2012 urterako. Lehenbizikoz, parte-hartze prozesu bidez egin dira eta herritarrek egindako ekarpenak kontutan hartu dira

ale honetan zer?

- 3 Udal zerbitzua eta erabakiak
- 4 Aurrekontua
- 7 Hondakinen bilkurak
- 8 Arloetako berrikuntzak
- 10 Inbertsio proposamenak
- 16 Elkarrizketa
- 18 Agenda
- 20 Asteburu musikalak

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala
Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa
Ale kopurua: 7.000
L.G: SS - 1148/91

Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu Azpeitian Zer? Egin eskaria 943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.



telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00	Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79	Euskara Patronatua	943 81 45 18
Alkatetza	943 15 71 85	Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16	Udal Euskaltegia	943 81 19 47
Idazkaritza	943 15 71 98	Zapo Txoko	943 15 71 61	Lapatx Zabortegia	943 15 18 75
Kontuhartzailatza	943 15 71 89	Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60	Azpeitia Lantzen S.A.	943 15 71 83
Hirigintza	943 15 71 91	Eguneko Zentroa	943 15 74 96	Ingurugiro Etxea Fundazioa	943 15 17 13
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92	Liburutegia	943 15 71 95	Tokiko Agenda 21	943 15 70 70
Kultura	943 15 70 68	Udaltzainak	943 15 13 13	Kontsumitzaileen	
Komunikazioa	943 15 79 82	Suhiltzaileak	112	Informaziorako bulegoa	943 15 71 93
Kirolak	943 15 00 95	Igerilekua	943 81 41 21	Baigera I	943 81 44 64
Parekidetasuna	943 15 79 28	Kiroldegia	943 81 30 69	Baigera II	943 81 23 89
Emakumeen Txokoa:	943 15 70 55	Izarraitz Pilotalekua	943 81 25 63	Ingurugiro Etxea Museoa	943 81 24 48

botikatxandak



ALBERDI. Jose de Artetxe 6, Tel.: 943 81 59 74
Maiatzaren 5, 6, 8, 14, 25 eta 30

ARANBURU. Plaza Nagusia - Goiko kalea 2
Tel.: 943 81 13 50
Maiatzaren 2, 3, 4, 11, 19, 20 eta 23.

BERISTAIN. Urbitarte auzoa 3, Tel.: 943 81 19 49
Maiatzaren 1, 7, 12, 13, 17, 24 eta 29.

EIZAGIRRE. Enparan 29, Tel.: 943 81 12 74
Maiatzaren 9, 15, 18, 21, 26, 27 eta 31.

JACOME. Garmendi 21, Tel.: 943 08 02 58
Maiatzaren 10, 16, 22 eta 28.

Udal zerbitzuak

Azpeitiko Udal Liburutegia



Azpeitiko Udal Liburutegi Publikoak informazioa eskuratzea, prestakuntza bideak jartzea, aisialdi eta kulturarako iturriak eskuratu eta erabiltzeko garaian herritar guztiei aukera berdintasuna bermatuko duten zerbitzuak eskaintzea du helburu. Horrela, liburu, aldizkari, egunkari, DVD, CD, CD-Romak zein bideoak mailegatzeko eta kontsultatzeko aukeraz gain, erreferentziarako eta aisialdirako gunea den heinean, herriko ikastetxe guztiekin harremanetan dago. Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ditu: besteak beste, ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak, errezitaldiak edota ikustaldi didaktikoak antolatzen dira. Azpeitiko herriari buruzko edozein dokumentu zein idazle edo autoreek argitaratutako edozeren bilduma osatzen ari da, "Herriko Fondoa" biltzeko asmoz.

• Non:

Espanan Dorretxean

• Ordutegia:

NEGUAN

Astelehenetik ostiralera

• Goizetan 09:30-13:00 • Arratsaldetan 16:00-20:00
Larunbatetan 09:30-13:00

UDAN

Ekainaren azken astean, uztailean, abuztuan (bigarren hamabostaldian) eta irailaren lehen astean.

Astelehenetik ostiralera

• Goizetan 08:30-14:00 • Arratsaldez itxita
Abuztuko lehen hamabostaldia itxita.

Udako, Eguberritako eta Aste Santuko larunbatak itxita.

Udal erabakiak

Apirilaren 3an egindako Udalbatza osoak ondorengo erabakiak hartu zituen:

1. 2012ko martxoaren 6an egindako bilkuraren akta aho batez onartu zen.
2. 2011. ekitaldiko Udalaren, Azpeitiko Kirol Patronatuaren eta Azpeititiko Euskara Patronatuaren aurrekontuen likidazioak onartu direla jakinarazi zen.
3. 2012. aurrekontuaren barruan, 2011ko kreditu gerakina barneratzeko lehen aldaketa kredituaren espedientea onartu dela jakinarazi zen.
4. 2012. ekitaldirako aurrekontuari hasierako onarpena eman zitzaion Bilduren aldeko botoekin, eta EAJ-PNV eta Hamaikabat alderdien aurkakoekin.
5. Azpeitiko Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza Arautzaileari hasierako onarpena eman zitzaion aho batez.
6. Bildu eta Hamaikabat alderdien botoekin Urola Garaiko Industrialdea S.A. eta Urola Erdiko Industrialdea S.A. baltzuen bateratzea ez onartzea erabaki zen. EAJ-PNV taldea abstenitu egin zen.
7. Azpeitiko uraren ziklo integralaren kudeaketa Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren gain uzteari dagokion hitzarmena: jendaurreko emaitza eta hitzarmena osatzen duten dokumentuen berri eman zen.

erreportajea

Herritarren parte-hartzearekin osatutako aurrekontuak onartu ditu Udalak



16,5 milioiko aurrekontua kudeatuko du Udal Gobernuak 2012 urtean

azpeitiko Udalak 16,5 milioi euro izango ditu 2012 urtean kudeatzeko. Apirilaren 3an egindako Udalbatzak onartutako kontuak, Udal Gobernuaren estrategia eta irizpideei erantzuten dietela agertu du Eneko Etxeberria alkateak; "Aurtengo aurrekontuak osatzeko orduan, sei izan dira erabili ditugun irizpide nagusiak:

- **gizarte beharrei erantzutea**
- **ekonomia suspertzea**
- **herriko lehen tasunei eta inbertsioei erantzutea**
- **herritarren beharrak asetzea**
- **boluntario lanetan dabilen taldeei laguntzea**
- **parte-hartze prozesu bidez, herritarrekin osatutako aurrekontuak osatzea lehenbizikoz**

Arduratsu jokatu dugu, hor daude aurrekontuak, herriari erantzuten diote eta une honetan herriak behar dituenak direla uste dugu. Aurrekontu zuhurrak eta arduratsuak egin dira", esan du.

“Arduratsu jokatu dugu, hor daude aurrekontuak eta une honetan herriak behar dituenak direla uste dugu”

Egungo krisi ekonomikoak erabaki gogorak hartzera behartu dituztela adierazi du Etxeberria, "baina beharrezkoa

izan da Udalaren efizientzia lortu nahi badugu. Administrazioak ere krisi egoerara egokitu behar du. Argi dugu Azpeitiko ekonomiaren motorra Udalak izan behar duela. Udalaren sarrerak iaz baino 3 milioi gutxiago izango dira 2012an. Horrela, gastu arrunta jaisteko hartutako neurriekin bi milioi euro aurrezteko lortu dugu eta honela, aurreztutakoarekin, inbertsioak ahalbideratuko ditugu".

ZER DIRA AURREKONTUAK?

Udaleko aurrekontuak bi atal nagusitan banatzen dira, batetik gastuak eta bestetik sarrerak.

GASTUAK:

1. **Gastu arruntak:** langileen soldatak, argia... Nahita ez ordaindu beharrekoak dira.
2. **Inbertsioak:** inbertsioak egiteko beharrezkoa den gastua da.

SARRERAK:

1. **Tasa, zerga eta Foru Aldundiko fondotik jasotzen direnak.**
2. **Diru-laguntza desberdinak.**

AZPEITIKO UDALEKO 2012ko AURREKONTUAK

I. AURREKONTU OROKORRA ETA ENTITATE BAKOITZARENA

AURREKONTU OROKORRA	17.715.250,26 euro
UDALA (aurrekontu propioa)	16.563.950,36 euro
EUSKARA PATRONATUA	585.929,03 euro
KIROL PATRONATUA	1.107.126,17 euro
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	388.000,00 euro

2. UDALEKO GASTUEN AURREKONTUA DEPARTAMENDUKA

Ogasuna eta Kontuak	1.297.358,08 euro
Hirigintza eta Ingurumena	1.829.200,00 euro
Hezkuntza eta Euskara	788.888,63 euro
Kultura eta Gazteria	738.000,00 euro
Kirolak	798.326,17 euro
Gizarte Zerbitzuak	925.420,00 euro
Langileria eta antolakuntza	5.431.554,47 euro
Festak	541.360,00 euro
Zerbitzu orokorrak	3.373.125,00 euro
Alkatetza	316.000,00 euro
Industria, Merkataritza, Turismoa eta Baserriak	416.717,91 euro
Parekidetasuna	107.500,00 euro
GUZTIRA	16.563.950,26 euro

3. 2011ko AURREKONTUEKIN ALDERATUZ

	2011	2012
UDALA (aurrekontu propioa)	19.788.664,16 euro	16.563.950,36 euro
EUSKARA PATRONATUA	654.200,13 euro	585.929,03 euro
KIROL PATRONATUA	1.074.342,13 euro	1.107.126,17 euro
AZPEITIA LANTZEN, S.A.	3.463.086,48 euro	388.000,00 euro
AURREKONTU OROKORRA	23.997.559,75 euro	17.715.250,26 euro

Udaleko bitartekoak herritarren esku ipini eta bidea herriko taldeekin elkarlanean egiteko konpromisoa hartu zuen Udal Gobernuak hasieratik eta horren adierazle bezala, 2012ko aurrekontuak herritarrekin batera egin dira. Lehenbizikoz abian jarri den parte-hartze prozesuaren baitan, herritar eta eragile guztiekin egin dira bilerak eta denen asmo eta beharrak kontuan hartu dira. "Prozesu parte-hartzailearen bidez osatu dira aurrekontuak. 800 herritar baino gehiagorekin bildu gara eta aurrekontuen inguruko azalpenak eta gardentasuna inoiz erakutsi den handiena izan da", gaineratu du Etxeberriak.

"Aurtengo aurrekontuen inguruko azalpenak eta gardentasuna inoiz erakutsi den handiena izan da"

Denon Artean ekimenak Aurreikuspen baikorrenak ere gainditu ditu. Izan ere, guztira 813 herritarrek parte hartu dute Azpeitia Denon Artean kanpainaren baitan antolatutako ekimenetan. Adin nahiz sentsibiltate desberdinetako herritarrek elkartu dira egindako 27 batzarretan, eta horrek balio berezia ematen dio ekimenari. "Horri gaineratu behar diogu batzar eta bileretan parte hartu duten herritarrek jarrera eraikitzaile eta kolektiboa izan dutela eta amaieran, prozesuaren balorazio positiboa egin dutela". Esperientzia pilotu bezala, froga gisara, martxan jarritako kanpaina ekimen arrakastatsua bilakatu da eta Udalak urtero egiteko asmoa agertu du.

Horrela, herritarrek dituzten lehentasun eta beharrak gertutik ezagututa, aurrekontuekin eta 2011 urteko soberakinekin Azpeitian egin nahi dituen asmoak finkatu ditu. Batetik, Udaleko arlo edo departamenduetako proposamenak zehaztu ditu.

Bestetik, herriko gune eta auzo desberdinetan hobekuntzak egin nahi ditu. Herritarrekin egindako batzarretan, azpeitiarrak egin nahi diren obrak agertu

zituzten eta Udal Gobernuak ondorengo hauek bereganatu eta erantzuna eman nahi die. Izan ere, Azpeitiko eremu guztietan aurreikusten dira aktuzioak.

Hala ere, asmo hauek proposamenak besterik ez dira, izan ere, beste alderdi politikoei agertu eta hauekin batera osatu nahi ditu Udal Gobernuak.



BATZARREN PARTE HARTZEA

HERRIGUNEKO AUZUNEAK

8 batzar

218 HERRITAR

HERRIKO AUZOAK

7 batzar

117 HERRITAR

ARLOAK

12 batzar

228 HERRITAR

SOREASU ATE IREKIAK

Kultur taldeekin 30 lagun

Herritarrekin 50 lagun

80 HERRITAR

AUZOLANEAN

70 HERRITAR

AZKEN HERRI KONTSEILUA

100 HERRITAR

GUZTIRA

27 batzar

813 HERRITAR



Hondakinen bilketa sistema eraginkorrena erabakitzeko parte-hartze prozesua

Parte-hartze prozesuak ez dira amaitu. Azpeitiko aurrekontuak herritarrekin batera osatu ondoren, azpeitiarrei zuzenean eragiten dieten gaietan bitartekoak jartzen jarraitu nahi du udal Gobernuak. Horregatik, orain, hondakinen gaia dugu eskurartean eta azpeitiarrek zerresana dutenez, hondakinen bilketa sistema eraginkorrena erabakitzeko parte-hartze prozesu berri bat jarriko da abian hurrengo asteetan.. Bost izango dira egingo dira bilerak; maiatzaren 16an hasi eta 23a bitartean. Udal ordezkariak herritarrekin bilduko dira ekarpenak jasotzeko asmoz eta horrela, azpeitiarrei partaide aktibo izateko deia luzatu nahi diete, antolatutako bileretara agertuz.

Hondakinen inguruko bilerak

MAIATZAK 16

Urrestilla, Aratz-Erreka, Nuarbe, Mantxinbenta

Tokia: Urrestillan
Ordua: 20:30ean

MAIATZAK 22

Pablo VI, Garmendi, Hartzubia, Jose de Artetxe, Landeta, Oñatz Auzoa

Tokia: Betharram aretoan
Ordua: 20:30ean

MAIATZAK 24

Gaztelaraz egingo da horrela nahi dutenentzat

Tokia: Betharram aretoan
Ordua: 20:30ean

MAIATZAK 17

Soreasu, Alde Zaharra, Madalena, Juan XXII, Arana, Santutxo, Damaso Azkue, Julian Elorza, Lasao, Odria Auzoa

Tokia: Soreasu antzokian
Ordua: 20:30ean

MAIATZAK 23

Euskal Herria, Xanjuandegi, Loiola, Loiolabide, Izarraitz Auzoa

Tokia: Betharram aretoan
Ordua: 20:30ean

arloetako egitasmo berriak

Ingurumena



- Inguruko herriekiko garraio publikoa indartu eta Diputazioak zerbitzuak hobetzeko abian jarritako kontratazio deialdiari jarraipena egin
- Garraio publikoaren aldeko kontzientziazio kanpaina bat martxan jarri
- Ahalik eta hondakin gutxiena sortu, berrerabili eta birziklatzeko, sistema eraginkorra ezartzeko apustua
- Erabaki parte-hartzailea izateko, prozesu indartsu eta zabala jarriko da abian

Hezkuntza eta Euskara



- Herriko euskal curriculuma martxan jartzea
- Euskara Patronatuko baliabide (humanoen) optimizaziorako plana
- Merkataritza eta lan mundua euskalduntzeko plana eguneratu. Kontseiluarekin harremanak sakondu. (bai euskarari ziurtagiria)
- Udaleko plana eguneratu UEMArenkin
- Hitanoaren inguruko plana
- Euskarazko herri komunikabideei (Hitza eta Uztarria) diru-laguntzak mantendu

Kultura eta Gazteria



- Sanagustineko edukiera gehitzeko obrak
- Kultur egutegi bateratua
- Azken urteetan gazteak beraien lokal propioak arautzeko ordenantza sortu
- Herriko gazte eragileekin harremanak indartu eta elkarlana sustatu

Kirolak



- Igerilekuko azken solairuan egokitza-penak egin bigarren sala kardiobaskularra egiteko
- Igerilekuak dituen hezetasun arazoak konpondu
- Garmendipeko harmaila atzeko eremuaren erabilera zehaztu
- Garmendipen bizikletentzat aparkaleku gehiago atera

Gizarte zerbitzuak



- Etorrinen mahaia osatu eta harrera protokoloa
- Udaletik bultzatutako eskolaz kanpoko ekintzetan, familia langabetuetako adin txikikoei hobariak (adib: musika eskola, kiroladegia...)
- Prestazio ekonomikoak: Udal lagun-tzak bikoiztu
- Arazo sozialak dituztenentzako 3 etxebizitza alokairu publikoak
- Ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitza eta zentruak
- San Martin egoitzaren handitzea bultzatu
- Diputazioarekin hitz egin egoitzan kontzertatu gabe dauden 7 plazak kontzertatzeko

Zerbitzu orokorrak



- Azpikontratazioen ordainketen aurrezte
- Energia aurrezteko plana
- Gardentasuna eta objetibotasuna bermatu asmoz, obren esleipenak arautu
- Software librearen aldeko apustua
- Ur hornidura Ur Kontsortzioaren esku uztea

Alkatetza

- Ordezkaritza, notarial eta judizial gastuak ordaindu
- Komunikazio gastuak ordaindu
- Nazio eraikuntzarako partida mantendu
- Fundazioko gastuak ordaindu

Industria, Merkataritza, Turismoa eta Baserriak



- Alde zaharreko biziberritzea
- Bertako produktuen inguruko kontzientziakzioa
- Etorkizuneko berdura plaza zehazteko parte-hartze prozesua jarriko da abian

Parekidetasuna



- Berdintasun plana, Indarkeriaren aurkako protokoloa, Jabetza eskola, Sexuen hezkuntza plana eta Emakumeen Txokoa proiektuak sakondu
- Indarkeriaren aurkako protokoloa indarrean jartzea
- Emakumeen presentzia publikoa indartu

Parte-hartzea



- Herri partaidetza sustatzeko ordenantza onartu
- Teknologien berrien erabilera egokitu
- Auzo alkateen onarpenerako prozedura martxan jarri
- Herriarentzat garrantzitsuak diren hainbat gairen inguruan (alde zaharraren biziberritzea, hondakinen kudeaketa...) prozesu parte-hartzaileak abiatu

Festak




- Festetako partidan aurreztu da, egitarauan eraginik izan gabe
- Festetan herriko talde eta eragileen presentzia indartu
- Talde eta eragileekin Festetako mahaia osatu



ALDE ZAHARRA

Azpeitiko Alde Zaharrak duen garrantzia berebizikoa da Udal Gobernuarentzat, historikoki azpeitiarren topagunea izan delako. Horregatik, Alde Zaharraren Biziberritzearen Plan Integralari eusteko, prozesu parte-hartzaile bat jarriko du abian Udalak. Hasieratik esan dugun bezala, herritar eta eragileekin erabaki nahi da zer egin Alde Zaharrean, baina hala ere, ideia batzuk ditugu eskuartean eta hemen aurkeztu nahi dira.



ALDE ZAHARRA - PEREZ ARREGI PLAZA

Zergatia:

- Urte hauetan Alde Zaharrean zoladura jartzeko akopio gisa. Jada funtzio hori bete du eta txukundu bat emateko ordua. Ibai ertzean egoteko lekua izaera (udan) berreskuratu.
- Trafiko ordenazio aldatu kotxeak Soreasura bideratzeko.

Aurrekontua: 90.000 euro (pilotalekuaren zoladurarako zegoen diru partidatik aurreztu den diruarekin egingo da udalari diru extrarik suposatu gabe).




ALDE ZAHARRA. Pilotalekua

Zergatia:

- Parkea frontoi txikitik "Abitaingo" iturriraino izanda, eremu honek beste dimentsio bat hartuko luke aisialdi gune gisa.
- Gainera parkeari baterian aparkalekuak luzatuta ez litzateke ia aparkalekurik

Aurrekontua: 50.000 euro (parke estalia egiteko jarri zen partidatik aurreztutako diruarekin egingo litzateke Udalari diru extrarik suposatu gabe).




ALDE ZAHARRA. Olazko Ama oinezkoentzat jartzea.

Zergatia:

- Trafiko ordenazio aldetik ez du horrelako eragozpenik sortzen eta aparkaleku gutxi galtzen dira. Eremu honek beste dimentsio bat hartuko luke.
- Galtzen den kopurua aterako genuke juxtu goialdean eta ibai ertzeko bide ondoan.

Aurrekontua: Lurzorua egokitzea (50.000 euro) eta komun publikoa (50.000 euro)



ALDE ZAHARRA. Plaza oinezkoentzat jartzea. Frantziskanetan aparkalekuak.

Zergatia:

- Merkatarientzat eta bertako bizilagunentzat eragozpenak.
- Plaza oinezkoentzat jartzea lehentasuneko da, baina irtenbide orekatua.
- Lur-jabetza Frantziskanarenak dira, beraz, hau gauzatzea ez dago Udalaren esku bakarrik
- Akordiora iritsiz gero, 80-90 aparkaleku berri (plazan baino gehiago)
- Beste aukera Zelai Luzen aparkalekuak ateratzea.

Aurrekontua: Zehaztu gabe





ALDE ZAHARRA. Bustunzuriko errebalaren atzealdea.

Zergatia:

- Alde Zaharreko oinezkoen leku desberdinek (Olazko Amaren plaza, herriko plaza...) dakarten aparkaleku arazoari erantzuteko proposatzen da obra hau.
- Bustunzuriko Errebaleko bizilagunek, gunea oinezkotzeko eskaera egin dute. Eskaria jaso eta Alde Zaharreko oinezkotze parte-hartze prozesuan txertatuko da.
- Oinezkotzeak eragingo luketen aparkaleku faltaren aurrean, aukera bat emango litzateke.

Aurrekontua: 50.000 euro

HERRIGUNEKO AUZUNEAK



XANJUANDEGI Jose Antonio Agirre plazaren eraberritzea

Zergatia:

- Aisialdirako leku egokia da baina gutxi aprobetxatuta dago. Gainera, errepidea egoera kaxkarrean aurkitzen da.
- Lurzoruaren eraberritzea bertako bizilagunek %70ean ordainduko dute eta Udalak %30ean.

Aurrekontua: 150.000 euro = Lurzoruaren zatia + lurzoru gaineko ekipamendua + errepidea

XANJUANDEGI

Zergatia:

- Urbanizazio aldetik txukundu handia.
- Auzo berria den Etxebeltz-Izarra, Xanjuandegikin lotu, zubi baten bidez.
- Kotxeentzako ere lotzeak Loiolako bide zarra erabat oinez-koentzat jarri.

Aurrekontua: Obra honen erdia Etxebeltz-Izarrako promotoreek ordainduko dute.

- Bestea erdia Udalak, Etxebeltz Izarrako etxeak egiteagatik ordaindu beharreko zergetatik. Beraz Udalak ez du diru extrarik jarri beharrik.



GARMENDI

Zergatia:

- Garmendin urteetan urbanizazio lan gutxi egin dira (espaloiak egoera txarrean...)
- Urbanizazio lanen baitan bidegorri zati berria egingo da, horrela herri arteko lotura (Azkoitia-Lasao) ia bukatuta geldituko da.
- Garmendipe futbol zelai atariari ordenazio egokia eman (bidegorria eta espaloia) eta galdutako aparkalekuak hamailla atzeko eremuarekin orekatuko genituzke.


Aurrekontua: 400.000 euro. 200.000 euro lortzea espero dugu. Beraz Udalarari 200.000 euro kostatuko zaio.

SANTUTXO - ARANA

Zergatia:

- Herriko erdigunearen goialdean egonik, hainbat egunetan aparkaleku arazoak izaten dira. Espaloia ere egoera oso txarrean.
- Santutxo goian geratzen da. Izarraitz frontoian igogailu berria ibiltzen ez dena.
- Arana goiko haur parkea eraberritu.

Aurrekontua: Igogailurako egokitzapenak: 40.000 euro
Aparkalekuak eta espaloiak eraberritzea: 100.000 euro



SOREASU

Zergatia:

- Soreasun urteetan ez da ezer egin.
- Urbanizazio aldetik egoera oso txarra du (espaloirik ez, aparkalekuak asfaltatu gabe...)

Aurrekontua: 140.000 euro



Pilotalekurako zegoen partidatik aurreztu den diruarekin egingo da

JUAN XXIII

Zergatia:

- Aurten argiztapena, aparkalekuak margotu... egingo gedituzke.
- Urbanizazioa egiteko arazo nagusia aparkalekua da, beraz, Frantziskana eta soreasuko bilakaerek baldintzatuko dute etorkizunean egin daitezkeen urbanizazioak.

Aurrekontua: Zehaztu gabe



ETXEBELTZ-IZARRA

Zergatia:

- Urbanizatu gabe eta egoera kaxkarrean dago.
- Eremu hau egokituta, igerilekura sarbide bezala potentziatu eta Xanjuandegi bertako bizilagunentzat zertxobait liberatu aparkalekuei dagokionez.

Aurrekontua: Udalari ez zaio ezer kostatuko, Etxebeltz Izarrako urbanizazio gisa egingo baitute bertako promotoreek.

* Honi gehitu behar zaio Xanjuandegira doan zubia.

HARTZUBIA - ASTOTEGIA

Zergatia:


- Zergatia: Oinezkoak Alde Zaharrera joateko ez dute espaloirik. Arriskutsua eta desegokia.

Aurrekontua:

- 300.000 euroko aurrekontua du baina 2/3eko diru-laguntza lortu da.

Udalari beraz 120.000 euro kostu erreal.

HERRIKO AUZOAK



URRESTILLA

Zergatia:

- Orain umeen parkean dagoen lekutik "pasarela" bat doanez ibaiaren beste aldera umeen parkeari kokapen berria bilatu behar zaio. Gaztetxoentzako jolaserako ekipamendu gabezia ere behin eta berriz aipatu da .
- Hau ikusita, aukera bat izan daiteke Eliz atariko aparkalekua oinezkotzea, plazari beste dimentsio bat emateko aisialdirako.
- Hala ere, ezinestean, hau guztia Urrestillako Herri Batzordearen oniritziarekin bakarrik egingo litzateke.

Aurrekontua: 60.000 euro



ARATZ - ERREKA

Zergatia:

- Asteburuetan elkartzen direnerako frontoiaz aparte aisialdirako espaziorik ez.
- Lurrak eskuratuz gero, frontoi aurreak beste dimentsio bat hartuko luke umeen parke zein aisialdirako egokitzuz.

Aurrekontua: 50.000 euro




NUARBEOKO FRONTOIA

Zergatia:

- Auzo bakarrenetakoa da frontoirik ez duena.
- Frontoiarekin komun publiko bat jartzea proposatzen da.

Aurrekontua: 300.000 euro (aurreko legegintzaldian hasi zen proiektua da eta diru partida badago).



LASAO. Auzo lokala

Zergatia:

- Desatseginak diren hainbat instalakuntza (elektrikoa, Corrugados...)
- Herri sarreran dagoen eraikinean aukera badago baina apezpikuarena da. Urteetan hainbat saiakera egin badira ere, ez da lortu gustuko akordiorik ez auzotarren ikuspuntutik eta ez Udalaren ikuspuntutik.
- Beste saiakera bat egin daiteke. Hala ere ezetxean badaude aurrean dagoen zelaian pre-fabrikatu bat jar daiteke.

Aurrekontua: 50.000 euro



LANDETA

Zergatia:

- Espaloia egingo da.
- Zati honetan ez dago espaloirik eta Lau Bide aldetik Bordatxo aldera joateko errepidetik ibili beharra dago. Gainera trafiko handiko lekua da. Arriskutsua oinezkoentzat.

Aurrekontua: 50.000 euro

MATXINBENTA

Zergatia:

- Haur parkea lekuz mugitu eta eraberritzea beharrezkoa da leku pribatuan eta txarrean baitago.

Aurrekontua: 15.000 euro



LOIOLA

Zergatia:

- Argiztapena (lehenengo Loiolatxo zegoen lekutik Uranga aldera argiztapena)
- Komun publikoak

Aurrekontua: 25.000 euro

elkarriketa

Eneko Etxeberria *Alkatea*

“Udal Gobernu honen konpromisoa gardena izatea da”



Udal Gobernu taldeak 2012rako aurrekontuak onartu ditu. Egungo egoera ekonomikoak eragin zuzena izan dute Udaleko kontuetan, baina herritarrek izan duten parte-hartzearekin eta egin dituzten ekarpenekin, aurrekontu orekatua eta arduratsuak osatu dituztela uste dute ardura-dunek

Udal Gobernuaren lehenbiziko aurrekontuak izan dira. Zer nabarmenduko zenuke?

Lehenbiziko aurrekontuak eta erabaki garrantzitsua da. Lehenik erabaki garrantzitsua aurrekontuak forma eta eduki berria batekin egitea izan zen, herritarrekin parte-hartze prozesu bidez eta bigarren erabaki garrantzitsua, testuinguru ekonomikoa ikusirik, aurrekontuak atzeratzea, zuhurtziaz egin ahal izateko eta datu ekonomiko errealekin. Parte-hartzeari dagokionez, helburuak hiru izan dira nagusiki, gardentasuna, denon artean egitea eta kontrola.

Helburu horiek bete direla uste al duzue?

Gardentasuna oinarritzkoa da. Udal Gobernu honek hartzen dituen erabakiekin ados egon daiteke jendea edo ez, Udal Gobernuaren estrategia zalantzan jarri daiteke, baina Udal Gobernu honen konpromisoa gardena izatea da eta Azpeitiko kontuak herritar guztiak ezagutzea. Eta hor, lehen pausoa eman dugu

eta gehiago emango ditugu. Bigarren helburua denon artean egitea izan da, izan ere, erabakiak denon artean hartuz gero, gauzak hobeto egiten dira. Askotan, erabakiak pertsona gutxiren artean hartzen direnean ondo daudela pentsatu daiteke, baina jendearen iritzia jasoz gero, hobetu daitezke. Azken helburua kontrola da, udaletxearen aktibitate politikoaren kontrola. Udala zertan ari den jakitea, udaletxea fiskalizatzea, Udalak azalpenak eman beharra izatea... tresna demokratiko bezala planteatzen dugu parte-hartze prozesua. Honekin, politika egiteko modu berri bat eskaini nahi dugu. Horrez gain, parte-hartze ordenantza berria onartuaz. Bestetik, aurrekontuak atzeratzea, egungo egoera ekonomikoak eraman gaitu. Batez ere, martxoa arte ez gene-kielako zer diru-sarrerara izango genituen. Honek, hirugarren ardatz batera erama-ten gaitu; udaletxeko estruktura adminis-tratiboaren optimizazio sakona egiteko erabakira. Egoera ekonomiko honetan herritar denok etxean egin dugun moduan balio erantsi txikia duten

gastuak moldatu ditugu. Modu honetan, gastu arruntean ia 2 milioi euroko jaitziera egitera eraman gaitu, erabaki gogorak hartuz, baina kudeaketa onak exijitzen dituen erabakiak hartuz. Guk administrazio pu-blikoaren efizientzia bilatu dugu eta inola ere ez dugu herri honentzat inbertsioa suposatzen duena ukitu, gastu arrunta baizik.

Udalan non eragin duzuen gehien?

Aurrez esan bezala, inbertsioak diren partidak ez dira ukitu. Guretzat estrategikoak diren atal horiek mantendu egin dira eta beraz, lau ataletan egin dira jaitzierak; azpi-kontratazioetan, adibidez Landetako lantegietara joateko autobus zerbitzuak kendu dira, igandeetan hondakinak ez jasotzeko erabakia hartu da, festetako esku-orriak kendu dira, sari asko ez dira banatzen dagoeneko, ordu extrak ez daude... Bigarren atala oso estrategikoa izan da, uraren gestioa Ur Kontsortzioaren esku uztea, hain zuzen ere. Erabaki honek Udalak sarrerak izatea sortu du eta urtero, 700.000



euroko gastua aurreztea. Hirugarren atala, Euskara Patronatuko hainbat proiektutan egin diren aldaketak dira eta laugarren atala, Udaltzaingoan egin diren murrizketak.

Aurrekontuak zerren arabera osatu dira?

Estrategi bateri erantzuten diote. Udal Gobernu honek badaki Azpeitia nora eraman, eta hori programa elektoral konkretu batean aurkeztu genuen. Estrategia hori, beraz, idatziz planteatu genuen. Horrez gain, estrategi propioa lantzen saiatu gara eta arloetan eta herrian jarraitu beharreko ildoak markatu ditugu hainbat aldiz, beraz, ezagunak dira. Aurrekontu hauek inola ere ez dira neutralak, estrategi konkretu bati erantzuten diote, hain zuzen ere, Udal Gobernuaren estrategiari erantzuten diote.

Aurten gainera sarreretan 3 milioi gutxiago izan ditu Udalak.

Horrela da, errealitatea da, baina horrek ez digu suposatu guretzat estrategikoak diren arloetan jaitsierak egitea. Adibidez, Gizarte Zerbitzuak bere osotasunean mantendu dira eta arlo ekonomikoan inbertsioak ahalbi-deratzeko ditugun tresna desberdinak ere mantendu ditugu, batez ere, Iraurgi Lantzen dugu hor. Optimizazio plan honekin, aukera izan dugu, inoiz ez bezala, herritarrei inbertsio plan indartsu bat planteatzeko. Inbertsio plan hau ez zen posible izango, administrazioan ez balitz jaitsierarik egin.

Beraz, inbertsioak egiteko plan bat aurkeztu duzue herrian?

Inbertsioen atala Denon Artean prozesuarekin sortu da. Azpeitian badaude hainbat auzo urteetan ez dutenak hobekuntzarik izan. Gure ustetan, herri bat transformatzeko ez da beharrezkoa obra handiak egitea, guk kontzeptu urbanistikoko berri bat planteatzen dugu; akupuntura urbanoa. Materia honetan adituei jarraikiz, batez ere Lemerri, gaur egun herriak aldatzeko, herria egiteko eta egoera berrietara egokitzeko erabiltzen den teknika da akupuntura urbanoa eta guk teknika honetan sinesten dugu. Hau da, ukitu txikiekin, gauza txikiak aldatuz, herria aldatu. Hau da gure proposamena. Gainera, proposamen honi zentzua emateko, kontutan hartu behar da, Azpeitia, oinezkoentzako herria bezala irudikatzen dugula. Beraz, hainbat erabaki hartu behar dira errealitate hori egi bihurtzeko. Hala ere, inbertsio hauez gain, ez dugu ahazten gure bi ardatz estrategiko; Gizarte Zerbitzuetan azpeitiar denok bizitza duina izateko inori ezer ez falta izatea eta horretan ari gara, laguntza sozialak bikoiztu baititugu, 70.000 euro gehiago jarriz eta ekonomi arloan, berriz, udaletxeko tresna eta agentziak, Azpeitia ekonomikoki hobetu dezaketen proiektuak bultzatu eta sustatzea.

Zein irizpide jarraitu dituzue inbertsioak proposatzerako orduan?

Hiru irizpideri erantzuten diote;

programa elektoralari, plan estrategiko konkretu bati eta aurtengo irizpide zehatzei. Irizpide hauek Denon Batean programarekin lotuz gero, emaitza inbertsio proposamen hau da. Herritarrek beharrezkoa dute hainbat auzoetan gutxieneko inbertsioak egitea, batzuetan espaloietatik ari gara hitz egiten, besteetan, semaforoetatik, beste batzuetan parkeak garbitzeaz... aurrez komentatu dudak akupuntura urbanoa ukituak dira. Ukitu txikiak, baina osotasunean garrantzia dutenak.

Balorazio orokorra zein da?

Egia da gogorra izan dela, batetik, testuinguru ekonomikoak eta sarreretan 2 milioiko jaitsierak eraginda, erabaki gogorrak hartu behar izan ditugu, baina erabakiak hartzeko eta arazoak konpontzeko gaude. Bestetik, ordea, aurten lehenbizikoz parte-hartze prozesu zabal bidez osatu dira aurrekontuak. 800 herritar baino gehiagorekin egon gara eta lan asko izan dugu, baina hein handi batean, lana baino, aberasgarria gehiago izan da. Estrategikoa izan daiteke etorkizuneko erabakiak hartzeko orduan. Udalak gardentasunez erakutsi ditu zenbakiak herritarren aurrean eta politika herritarrengana hurbiltzeko balio izan du. Amaitzeko, herritarrek zoriondu nahi nituen, izan duten partaidetzagatik eta jarrera eraikitzaile eta ekarpen kolektiboengatik.

agenda

MAIATZA

	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			



11, ostirala

ARATZ ERREKAN SAN
ISIDRO JAIK 2012

GAZTE ASTEA

Arratsaldean malabarak plazan
20:00etan Sahieski jana plazan
Ondoren parodia Sanagustin

12, larunbata

IZARRAITZ IGERI ELKARTEA
ALEBIN TXAPELKETA

Ordua: goiz/arratsaldez

Tokia: igerilekua

TXOLARTE EGUNA AZPEITIAN

11:00etatik 17:00etara

ASTEBURU MUSIKALA 2012

MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

Ordua: Sanagustin Kulturgunea

Lekua: 19:00

ARATZ ERREKAN

SAN ISIDRO JAIK 2012

GAZTE ASTEA

Etorri eta ezagutu Gaztetxea

(pintxoak, jolasak etab. egongo dira)

13, igandea

VIII. IZARRAITZ MENDI

LASTERKETA

Ordua: 10:00

Irteera/amaiera: Plaza Nagusia

IZARRAITZ IGERI ELKARTEA

ALEBIN TXAPELKETA

Ordua: goiz/arratsaldez

Tokia: igerilekua

GIPUZKOAKO BASOJABE

ELKARTEA BILKURA

Ordua: 10:30

Lekua: Soreasu antzokian

UMEENTZAKO EMANALDIA

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

Ordua: 18:30

GAZTE ASTEA

18:30ean Korto emanaldia Gaztetxean

Ondoren eztabaida eta afaria

15, asteartea

ARATZ ERREKAN

SAN ISIDRO JAIK 2012

San Inazio jaietako zezenketako kartela

Ordua: 18:00etatik 20:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

16, asteazkena

San Inazio jaietako zezenketako kartela

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

Hitzaldia

Denok al gara Mariren alabak?

Hizlariak: Jone Miren Hernandez

eta Maggi Bullen

Ordua: 19:30

Lekua: Emakumeen txokoa

17, osteguna

San Inazio jaietako zezenketako kartela

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

MIKEL ALBERDI

Errezitaldi musikatua

Ordua: 19:00

Lekua: Sanagustin Kulturgunea

GARTXOT – FILMEA

Azpeitiko Kultur taldeak

SOREASU ANTZOKIAN

Ordua: 21:30

18, ostirala

San Inazio jaietako zezenketako kartela

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

BIGARREN ESKUKO AZOKA-
MUGIKORTASUNA

Lekua: Plaza Nagusia

Ordua: 17:30/20:00

MUSIKA BANDAREN

KONTZERTU DIDAKTIKOA

Ordua: Sanagustin Kulturgunea

Lekua: 19:30

GARTXOT antzerkia eta irudiak

Soreasu antzokian

Ordua: 21:30

19, larunbata

San Inazio jaietako zezenketako kartela

Ordua: 12:00etatik 14:00etara

Lekua: Betharram Aretoa

ESKOLARTEKO XXXIII. FUTBOL
TXAPELKETA FINALA

Ordua: 15:30

Lekua: Garmendipeko futbol zelaia

ELKARTASUN EGUNA

11:00etatik aurrera, hamaika

ekitaldi izango dira



San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

20, igandea

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

TXALINTXOKO EGUNA

Irteera: goizeko 9:00etan plazatik

ANTZINAKO SCOOTER, VESPA TA LAMBRETA BILKURA

Ordua: 11:00etatik aurrera
Lekua: Plazan

21, astelehena

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

22, asteartea

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

“Harrizko Ametsak” Gorka Karapeto

Lekua: Lagun Onak M-Bko aretoa
Ordua: 21:00

23, asteazkena

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

HITZALDIA

Benito Lertxundi eta Pako Aristi
Lekua: Sanagustin Kulturunea
Ordua: 19:00

Proiektzio emanaldia
“Broad Peak 2010” Josu Bereziartua
Lekua: Lagun Onak M-Bko aretoa
Ordua: 21:00

24, osteguna

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

Proiektzio emanaldia

“Zeelanda Berria, Pedal
Kolpean, familia Giroan”
Rosa Lizaso eta Mikel Bringas
Lekua: Lagun Onak M-Bko aretoa
Ordua: 21:00

25, ostirala

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

EMAKUMEEN JAIALDIA

Gitarra kontzertua, “Bai nahi dut”
antzerkia eta afaria
Ordua: 19:00
Lekua: Sanagustin kulturunea

26, larunbata

LAGUN ONAK MB
Eskalada ikastaroa eta emanaldia

TXIRRINDULARI GAZTEAK

Irteera/amaiera: Betharram
Ordua: 10:00

San Inazio jaietako zezenketako

kartela
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

BANDA GAZTEA ETA TXISTULARIAK

Ordua: Sanagustin Kulturunea
Lekua: 19:30

27, igandea

San Inazio jaietako zezenketako
kartela
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

XOXOTEKO EGUNA

Irteera 9:00etan Plaza Nagusitik

28, astelehena

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 12:00etatik 14:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

29, asteartea

ERAKUSKETA:
San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

30, asteazkena

San Inazio jaietako zezenketako kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

ARGIA DOKUMENTALA “ERHAL- KANPORA”

Ordua: 21:00
Lekua: Sanagustin Kulturunea

31, osteguna

San Inazio jaietako zezenketako
kartela
Ordua: 18:00etatik 20:00etara
Lekua: Betharram Aretoa

asteburu Musikalak

APIRILA-MAIATZA-EKAINA

20 2



MAIATZA

12, larunbata

**UDAL MUSIKA BANDAREN
KONTZERTUA**

Lekua: Sanagustin Kulturgunea
Ordua: 19:30

26, larunbata

**BANDA GAZTEA ETA
TXISTULARIAK**

Kalejira kaleetan zehar eta
kontzertua
Lekua: Sanagustin Kulturgunea
Ordua: 19:30

EKAINA

2 edo3, larunbata/igandea

**UDAL MUSIKA BANDAREN
KONTZERTUA**

Lekua: Xanjuandegi auzoan
Ordua: Goizean

3, igandea

**BANDA GAZTEA ETA
TXISTULARIAK**

Lekua: Nuarbe auzoan
Ordua: 13:00

20, asteazkena

**JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLA
Amaierako jaialdia**

Lekua: Soreasu Antzokia
Ordua: 19:30

23, larunbata

SAN JUAN SUA EKITALDIA

Partaideak: Juan Antxieta musika
eskola, Udal Musika Banda,
Julian Barrenetxea Abesbatza eta
Antzezleak...

Lekua: Plaza Nagusian
Ordua: 21:45

24, igandea

**UDAL MUSIKA BANDA
Kalejira eta prozesioa**

Lekua: Urrestilla auzoa
Ordua: 11:00

**Zubi zaharreko taldearen eta
Urrestillako musika taldeen
lankidetzari esker, maiatza-
ekainean zehar kontzertu pare
bat izango ditugu, data zehaztu
gabe**